



## **Zeure eskuetan duzu I+G gastu aurreratuari buruzko lehen Azterketa, INNOBASQUE-Berrikuntzaren Euskal Agentziak egina, enpresen, Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako herri-erakundeen eskura jartzeko tresna eguneratu bat, herrialdeko berrikuntza-politikak ongi bideratu ahal izateko**

**Ekonomiaren hazkunde sendo eta baikortasun nabariko aldi baten ondoren, horren goren puntua 2018an izan zelarik, ekonomiaren egoera hondatu egin da. Ziklo ekonomikoa hozteak, ziurgabetasun politikoak eta tirabira geopolitikoek azaltzen dute euskal enpresaren jarrera-aldaketa, mundu osoan orokortua.**

**Hala eta guztiz ere, 2019an 13 euskal enpresa-talde nagusiek % 6.15 igotzea espero dute inbertsio-maila I+G-n**

### **Zergatik?**

Brexita eta AEBren eta Txinaren arteko merkataritza-tirabirak protagonista diren jokalekuan, sekula baino garrantzitsuagoa delako I+G-n inbertsio-mailak mantentzea etorkizuneko lehiakortasuna bermatzeko. Egungoa bezalako une erabakigarrietan behar da sekula baino gehiago berrikuntza-estrategia iraunkorra lehiakideengandik bereizteko. Garrantzitsua da administrazioek, enpresek eta zientzia- eta teknologia-eragileek irmo eustea apustuei.

Txostenak diotenaren arabera, **I+G-n inbertsioa Euskadin 1.514 milioi euroko maximo historikora iritsiko da 2019an, % 5,6 gehiago 2017an baino, eta euskal BPGaren % 1,9 izango da, baina oso urrun oraindik Europako batez bestekotik, honen gastua I+G-n % 2,07koa izan baitzen BPGaren gainean 2017an. Inbertsio publikoa 2019an % 7,2 haziko da** (betiere kontuan harturik I+G-rako aurrekontu-gehikuntzei eusteko konpromisoa hartu duela Eusko Jaurlaritzak, aurrekontuak luzatu egingo dituen arren), **eta enpresa-inbertsioa % 4,2 haziko da iazko urtekoaren aldean.**

## Ondorioak argiak dira:

**Ondorioak argiak dira: Euskadik jarraitzen du norabide egokian, baina ezinbestekoa da aurrera jarraitzea azken urteotan egindako lanean. Euskal ekonomiak I+G-n duen intentsitateak hazkunderari eusten dio, baina oraindik Europako Batasunaren azpitik dago, eta azken urteotan I+G gastuan EB-28arekiko ireki den eten edo arrakala handiagoa da enpresen kasuan.**

Euskadin I+G gastuaren buruan dauden konpainia handietako 13rekin lankidetzan egin da azterketa: Aernnova, Artech, CAF, Etxe-Tar Group, Faes Farma, Iberdrola, Ingeteam, Irizar, ITP Aero, Mondragon Corporation, SENER, Sidenor eta Velatia.

**2017an enpresa-talde hauek, guztiak Innobasqueko bazkideak, herrialdean I+G-n izandako gastuaren % 25 baino gehiago egin zuten.**

Txostena, Lehendakaritzarentzat egina, **estatistika-eredu batean oinarritzen da**; horren diseinuan **Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak** lagundu du, eta gero **Deusto Business Schooleko Mikel Navarro katedradunarekin** eta **Eustat-ekin** kontrastatu edo egiaztatu da.

**Zenbatespen hau**, erabilgarria erreferentzia-datu gisa, **Eustat-ek urtez urte I+G inkestaren bidez jasotzen duen informazioari esker** egin ahal izan da. Joan zen apirilaren 1ean abiarazi zuen Eustat-ek 2018ko I+G inkestarako informazio-bilketa. Erakunde guztiok, enpresa nahiz ikerketa-zentro izan, **erabaki-hartze zuzena bermatzeko informazio eguneratua behar dugun** bezalaxe, Eusko Jaurlaritzak eta gainerako herri-erakundeek ere horren beharra dute I+G+b arloan, **berrikuntza-politikak egoki orientatzeko**. Herri-erakundeen, enpresen eta zientzia- eta teknologia-erakundeen arteko interes partekatua da berrikuntza-politikak une bakoitzeko beharrezanetara egokitzen direla bermatzea. **Horregatik guztiagatik, inkesta hori garaiz eta zuzen betetzeak duen garrantzia azpimarratu behar da.**

**innobasque**

berrikuntzaren  
euskal agentzia

agencia vasca  
de la innovación

# EUSKADIKO I+G-KO BARNE GASTUARI BURUZKOAURRETIAZKO ADIERAZLEA

Metodologiari eta emaitzei buruzko txostena

2019ko APIRILA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## Sarrera:

# Proiektuaren beharra

- Euskadik 2017an izandako I+Gko gastuari buruzko datuak 2018ko azaroaren 22an argitaratu zituen Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak.
- **Informazio estatistikoa eskuan izatea funtsezkoa da** politika publikoetan erabaki zuzenak hartu ahal izateko.
- Urtero ematen den neurtutako denboraldiaren eta I+Gko gastuaren datu estatistikoaren argitaratzearen arteko **denbora-tartea** dela eta, erabakiak hatzerako datua zaharkitua izatea gerta daiteke.
- Enpresek **erabaki egokiak hartu ahal izateko informazio eguneratua** behar duten moduan, Eusko Jaurlaritzak eta gainerako erakunde publikoek ere informazio eguneratua behar dute I+G+b-aren alorrean, berrikuntza-politikak egokiro bideratu ahal izateko.
- Erakunde publikoek, enpresek eta erakunde zientifiko eta teknologikoek **interes partekatua** daukate berrikuntza-politikak unean uneko beharrizanetara egokituta daudela bermatzeko.

# Aurkibidea

**01.** Proiektuaren deskribapena

**02.** Eraitza nagusiak

**03.** Ereduen azalpena

**E.** Eranskinak:

Jarraitutako metodologiaren xehetasunak



01

# Proiektuaren deskribapena

Proiektuaren helburu nagusia Euskadik I+Gn egiten duen inbertsioaren adierazlea aurretiaz eskuratzea da, zehazki, aurten eta hurrengo urtean Euskadiko I+G barne-gastua zenbatestea du helburu

- Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak esleitutako **ebaluazio-funtziotik** abiatuta, Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Innobasquek, estatistika-erreminta bat garatu du **Euskadik I+Gn egindako barne-gastua aurrez zenbatesteko, eta, hala, lurraldeko berrikuntza-politikak bideratzen laguntzeko.**
- **Lehendakaritzarako** egindako zenbatespen horren oinarrian, estatistika-eredu bat dago. Eredu hori diseinatzeko kolaboratu du **Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak**; eta, halaber, **Orkestrak**, Lehiakortasunaren Euskal Erakundeak, eta **Eustatek**, Euskal Estatistika Erakundeak, kontrastatua da.
- Eredu horren erreferentzia **I+Gko Euskadiko aurrekontuak** dira eta **enpresen I+Garekin duen korrelazioa** aztertuz eraiki da.

**Lehendabiziko edizio honetan, 2018ko eta 2019ko datuak aztertuko dira**

Garatutako ereduaren emaitzak finago emateko helburuz, egikaritutako eta antzemandako gastua kontsultatu zaie Euskadiko I+Gan esanguratsuak diren 13 enpresa-taldeei, guztiak ere Innobasqueko bazkideak

*Kontsultatutako enpresa-taldeak*



Iturria: Enpresa-taldeei egindako banan-banakako kontsultak; Eustat. Ikerketa eta garapen estatistika.

**Enpresa-talde horiek Euskadiko I+G osoaren %25 baino gehiagoko pisua izan zuten 2017an**






02

**Eraitza nagusiak**

Innobasquek zenbatesten duenez, Euskadik I+Gn egindako inbertsioak urtero %5 baino gehiago jarraituko du handitzen 2018an eta 2019an, eta maximo historikora iritsiko da 2019an 1.514 milioi eurekin

*Euskadiko I+Gko barne-gastuaren zenbatespena eta urtearteko aldakuntza-tasa (milioi euro, %; 2001-2019<sup>1</sup>)*




(1) 2018ko eta 2019ko datuak, Innobasquek zenbatetsiak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta. Ikerketa eta garapen estatistika.

# Bilakaera horri esker, euskal ekonomia I+Gn intentsiboagoa izango da eta gastua BPGren %1,87 eta %1,90 izatera iritsiko da 2018an eta 2019an, hurrenez hurren

I+Gko barne-gastua Euskadin eta EB-28n BPG<sub>m/p</sub> gainean (%; 2001-2019<sup>1</sup>)




(1) 2018ko eta 2019ko datuak, Innobasquek zenbatetsiak.

Iturria: Geuk egina, hurrengo informazio iturrien datuetan oinarrituta: Eustat. Ikerketa eta garapen estatistika. Eustat. Kontu Ekonomikoak; Ogasun eta Ekonomia Saila (2018ko abenduko aurreikuspena); Eurostat. Statistics on research and development [rd\_e\_gerdto].

**Euskadi oraindik ere EB-28ren azpitik legoke, azken horrek BPGren %2,07 bideratu baitzuen 2017an**

# Hazkunde horren atzean, enpresek eta herri-administrazioek egindako finantzazio-ahalegin handiagoa ageri da

Euskadiko I+Gko barne-gastuaren zenbatespena funtsen jatorriaren arabera (milioi euro; 2001-2019<sup>1</sup>)




(1) 2018ko eta 2019ko datuak, Innobasquek zenbatetsiak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta. Ikerketa eta garapen estatistika.

**Zenbatespen horiek Eusko Jaurlaritzak I+Gra bideratutako aurrekontu-partiden hazkundera %5ean eusteko konpromezua hartzen du kontuan, nahiz eta aurrekontuak luzatuta egon**

# Halere, enpresek I+Gra bideratutako finantzaketa erritmo motelagoan haziko da herri-administrazioek egindakoaren aldean, nahiz eta krisi-garaian erresistentzia handiagoa erakutsi

Euskadiko I+Gko barne-gasturako enpresen eta herri-administrazioen finantzaketaren urtearteko aldakuntza-tasa (%; 2001-2019<sup>1</sup>)



(1) 2018ko eta 2019ko datuak, Innobasquek zenbatetsiak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta. Ikerketa eta garapen estatistika.

## Enpresen eta herri-administrazioen finantzaketa-handitzeen arteko korrelazio eta kausalitate handia direla eta, eredia erreminta egokia da Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-aldaketek euskal I+Gan izango luketen ondorioak simulatzeko

*Analisiaren ostean lortutako beste hainbat emaitza interesgarri*


- Garatutako eredia lagungarri izan liteke jakiteko zer inpaktu izango luketen Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-aldaketek Euskadiko I+Gko gastu osoaren gainean.
- Epe luzean hartuta, korrelazio positiboa ageri da herri-administrazioek finantzatutako I+Gko barne-gastuaren hazkundearen eta enpresek finantzatutako I+Gko barne-gastuaren hazkundearen artean.
- Gainera, herri-administrazioen finantzaketaren hazkundera balia liteke, neurri batean, enpresen finantzaketa aurrez ikusteko, baina ez alderantziz.
- BPGren urtearteko aldakuntzak nabarmen eragiten dio herri-administrazioen finantzaketaren aldakuntzari; hori, ordea, ez da gertatzen I+Garen gainerako finantzaketa-iturrietan epe laburrean.



03

**Ereduaren azalpena**

Garatutako ereduak I+Grako euskal aurrekontuak ditu oinarri, eta haiekin enpresen I+Grako finantzaketaren hazkundera zenbatesten da, eta, ondoren, Euskadiko I+Gko barne-gastua, aurten eta hurrengo urtean



**Eredua egindako korrelazio- eta kausalitate-azterketen emaitza da, eranskinetan azaldutako moduan**





**E**


# **ERANSKINAK**

**Jarraitutako metodologiaren xehetasunak**

# Lehenik eta behin, Euskadiko I+Gko barne-gastuari buruzko informazio estatistikoa ikertu da, beste hainbat alderdiren artean, nola finantzatzen den

## Eustatetik jasotako aldagaiak

- I+Gko barne-gastua, herri-administrazioek finantzatuta (HA)
- I+Gko barne-gastua, enpresek finantzatuta
- I+Gko barne-gastua, beste hainbat eragilek finantzatuta:
  - atzerrikoak (nazioart.);
  - goi-mailako hezkuntza (GMH);
  - irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak (IAGEP).
- Bestelako aldagaiak:
  - BPG<sub>m/p</sub> euro korrontetan
  - BPG<sub>m/p</sub> erreala




Iturria: Geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta. Ikerketa eta garapen estatistika.

**Eustatek finantzaketa-iturrien arabera I+Gko barne-gastuari buruzko informazioa eskaintzen du 1996tik 2017ra bitartean (21 urte), eta BPG eta beste hainbat aldagai ere eskaintzen ditu**

Esandako analisi horrek erakusten du korrelazio handia dagoela Euskadiko I+Garen finantzaketa-iturri nagusien artean (enpresak eta herri-administrazioak), nahiz eta adierazle horietako bat ezin den erabili bestea aurrez ikusteko

*I+Gko barne-gastuaren funtsen jatorrien eta BPGren arteko korrelazioa (1996-2017)*

I+Gko barne-gasturako herri-administrazioen eta enpresen finantzaketa (k€; 1996-2017)



Funtsen jatorria	HA	GMH	Enpresak	IAGEP	Nazioart.	BPG
HA	1					
GMH	0,3135	1				
Enpresak	<b>0,9425*</b>	0,4967	1			
IAGEP	0,7431*	0,0992	0,6004*	1		
Nazioart.	0,6360*	0,7560*	0,7783*	0,1998	1	
BPG	0,9191*	0,5786	0,9646*	0,5606*	0,7340*	1


(\*) Korrelazio-esanguratsiak.

- Serieek ez dute portaera ona (ez dira geldikorrak).
- Horrek zera esan nahi du, eredu soilaren bitartez (karratu txikien arrunten erregresio-modeloa), herri-administrazioek finantzatutako I+Gko barne-gastua erabiltzea enpresek finantzatutakoa aurreikusteko, halabeharrentzatik lortutako emaitzak izatea gerta liteke (faltsuak).

**Hau emaitzak ausazkoak izateagatik gertatzen da**

Aldiz, bi adierazleen hazkuntza-tasak hartzen baldin baditugu kontuan, orduan beraien arteko epe luzeko erlazioa aurreikus daiteke, erregresio arrunteko ereduaren bidez (karratu txikien arrunten erregresio-modeloa)

*I+Gko barne-gasturako herri-administrazioen eta enpresen finantzaketaren urtearteko aldakuntza (%; 1996-2017)*




**Halere, ez da ageri bien arteko korrelaziorik –ez positiboa, ez negatiboa–, aztertutako denbora-tarte osoan**

## 2000tik aurrera, bi serieek korrelazio handiak ageri dituzte, eta herri-administrazioek finantzaturako gastuaren hazkundera balia liteke enpresek finantzaturako gastuaren hazkundera zenbatesteko

*I+Grako funtsen jatorrien urtearteko aldakuntzaren eta BPGaren urtearteko aldakuntzaren arteko korrelazioa (2001-2017)*

I+Gko barne-gasturako herri-administrazioen eta enpresen finantzaketaren urtearteko aldakuntza (%; 2001-2017)



Funtsen jatorria (aldakuntza)	gHA	gGMH	gEnpresak	gIAGEP	gNazioart.	gBPG
gHA	1					
gGMH	-0,2194	1				
gEnpresak	<b>0,7406*</b>	-0,3339	1			
gIAGEP	0,2963	0,0408	0,0845	1		
gNazioart.	-0,1994	0,0205	0,0261	-0,5038	1	
gBPG	0,6513*	-0,0973	0,4440	-0,1626	0,0369	1


(\*) Korrelazio-esanguratsuak.

- Enpresek 2000ra arte finantzaturako I+Garen serieak hazkunde-tasa ezohikoak ageri ditu.
- 2000tik aurrera, korrelazio handia ageri da herri-administrazioek finantzaturako gastuaren eta enpresek finantzaturakoaren hazkunderen artean; horrek zera iradokitzen du, lehendabizikoa har litekeela bigarrena zenbatesteko.
- Gerturatze hori, ordea, ez litzateke baliozkoa gainerako aldagaietarako.
- Era berean, korrelazio handia ageri da BPGren urtearteko aldakuntzaren eta herri-administrazioen finantzaketaren urtearteko aldakuntzaren artean; ez da halakorik ageri gainerako aldagaietan.

**Gerturatze hori, ordea, ez litzateke baliozkoa gainerako aldagaietarako**

Are gehiago, datuek erakusten dutenez, finantzaketa publikoaren hazkunde-serieak informazio erabilgarria ematen digu enpresen finantzaketaren hazkunde-seriea aurrez ikusteko, eta ez alderantziz

*I+Gko barne-gasturako enpresen finantzaketaren hazkunde-tasa eta haren balioestea herri-administrazioen finantzaketatik abiatuta (%; 2001-2017)*



**Grangerren kausalitate-testa aplikatzen da**

# Horrez gain, BPGren hazkunde-tasarekin lotutako aldagaiek ez diote ekarpenik egiten zenbatespen honi

*Enpresek finantzaturako I+Gko barne-gastua herri-administrazioek finantzaturakoaren funtzio gisa  
(Eredu autoerregresiboa, atzeratze banatuekin: ARDL)*

ARDL(1,0) regression

Sample: 2001 - 2017 Number of obs = 17  
 R-squared = 0.8480  
 Adj R-squared = 0.8263  
 Log likelihood = -45.326248 Root MSE = 3.8358

D.gempresas	Coef.	Std. Err.	t	P> t	[95% Conf. Interval]	
ADJ						
gEnpresak L1.	-1.101394	.1284274	-8.58	0.000	-1.376843	-.8259444
LR						
gHA	.3531648	.0822312	4.29	0.001	.1767963	.5295332
SR						
_cons	1.587703	1.20823	1.31	0.210	-1.003693	4.1791

**Herri-administrazioen eta enpresen I+Grako finantzaketaren hazkunde-tasen arteko erlazioa positiboa eta esanguratsua da**

## Analisi horiek guztiek erakusten dutenez, I+Gko barne-gasturako herri-administrazioen finantzaketaren hazkundera erabil liteke enpresen finantzaketaren hazkundera zenbatesteko

*Kontuan hartu beharreko aldagaiei buruzko ondorioak*

- Epe luzean hartuta, korrelazio positiboa ageri da honako bi faktore hauen artean: batetik, herri-administrazioek finantzaturako I+Gko barne-gastuaren hazkunde-seriea, eta, bestetik, enpresek finantzaturako I+Gko barne-gastuaren hazkundera.
- Horrenbestez, finantzaketa publikoaren hazkunde-seriea erabil liteke neurri batean aurrez ikusteko enpresen finantzaketa-seriea.
- Serieotan bat-bateko aldaketak gertatzen direnean (adibidez, 1996 eta 2000 artekoetan), aurrekoa jasotzen duen eredu bat ez da ondo egokitzen.
- Nahiz eta proposaturako ereduak ondo egokitzen duen batez beste finantzaketa pribatuaren seriea, egiaz ikusitako aldaketak leuntzen ditu; hori dela eta, justifikatuta dago kontsulta bat egitea eragile-talde adierazgarri batekin, finagoa izan dadin finantzaketa pribatuaren hazkunde-tasaren aurreikuspena.

**Ereduak leundu egiten ditu enpresen finantzaketan ikusitako aldaketak**



# Hauek dira I+Gko barne-gastua zenbatesteko elementu nagusiak: Eusko Jaurlaritzaren I+Grako aurrekontuak, enpresen finantzaketa zenbatesteko proposatutako eredia eta enpresa-talde adierazgarri batekin egindako alderaketa

## Modelizatorako beharrezko elementuak

Funtsen jatorria	Eskura den azken datua	Beharrezko zenbatespenak (hazkunde-tasak)	Hasierako zenbatespen-metodoa	Alderaketa
Herri-administrazioak	2017	I+Gko barne-gasturako herri-administrazioen finantzaketaren aldakuntza (2017-2018 eta 2018-2019)	Eusko Jaurlaritzaren I+Grako aurrekontuak, Lehendakaritzak emanak, eta BPGren hazkundearen zenbatespena, Ogasun eta Ekonomia Sailak egina	
Enpresak	2017	I+Gko barne-gasturako enpresen finantzaketaren aldakuntza (2017-2018 eta 2018-2019)	Zenbatespena egiteko, herri-administrazioek finantzatutako I+Gko gastuaren aldakuntza baliatzen da, proposatutako eredia oinarri hartuta	Enpresa-talde adierazgarriekin
Goi-mailako hezkuntza	2017	I+Gko barne-gasturako goi-mailako hazkuntzaren finantzaketaren aldakuntza (2017-2018 eta 2018-2019)	Zenbatespena egiteko, aurreko hiru urteetako hazkunde-tasen batezbestekoa hartzen da	
Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak (IAGEP)	2017	I+Gko barne-gasturako IAGEPen finantzaketaren aldakuntza (2017-2018 eta 2018-2019)	Zenbatespena egiteko, aurreko hiru urteetako hazkunde-tasen batezbestekoa hartzen da	
Kanpotik etorria	2017	I+Gko barne-gasturako atzerriko funtsen aldakuntza (2017-2018 eta 2018-2019)	Zenbatespena egiteko, aurreko hiru urteetako hazkunde-tasen batezbestekoa hartzen da	<a href="#">Europako I+G+b proiektuetan euskal parte hartzea aztertzeko behatokia</a>

# Hazkunde-tasa leunduaz gain, herri-administrazioen finantzaketaren hazkunde-tasaren eta BPGren hazkunde-tasaren arteko korrelazioa ere hartzen da

*Herri-administrazioen finantzaketaren hazkunde-tasa, aurrekontu-tasa leunduaren eta BPGren hazkunde-tasaren funtzio gisa (Eredu autoerregresiboa, atzeratze banatuekin: ARDL)*

ARDL(1,0) regression

Sample: 2003 - 2017 Number of obs = 15  
 R-squared = 0.7726  
 Adj R-squared = 0.7105  
 Log likelihood = -41.291528 Root MSE = 4.4323

D.gaapp	Coef.	Std. Err.	t	P> t	[95% Conf. Interval]	
ADJ gHA L1.	-.7950588	.2384947	-3.33	0.007	-1.319982	-.2701356
LR gpres_ma	.8110627	.2183377	3.71	0.003	.3305046	1.291621
SR gBPG _cons	1.501106 -4.821782	.3135876 1.903854	4.79 -2.53	0.001 0.028	.8109041 -9.012135	2.191308 -.6314283

**ARDL eredu bat egiten da, herri-administrazioen finantzaketaren hazkunde-tasa zenbatesteko, aurrekontu-tasa leunduaren eta BPGren hazkunde-tasaren funtzio gisa**

Ereduak enpresen finantzaketan behatutako aldaketak leuntzen dituzenez, beharrezkoa da kontsulta egitea eragile-talde adierazgarri bati, aldakuntzaren aurreikuspena finagoa izan dadin

### Kontsultatutako enpresa-taldeak



### Hasieran zenbatetsitako emaitzen zuzenketa

Urtea	I+Gko barne-gastua (k€)		Enpresen finantzaketa (k€)		I+Gko barne-gastua BPG <sub>m/p</sub> -ren gainean (%)	
	Hasierakoa	Zuzendua	Hasierakoa	Zuzendua	Hasierakoa	Zuzendua
2017	<b>1.363.176</b>		<b>745.947</b>		<b>% 1,85</b>	
2018	1.445.033	<b>1.434.306</b>	779.865	<b>769.137</b>	% 1,88	<b>% 1,87</b>
2019	1.522.935	<b>1.514.082</b>	810.356	<b>801.504</b>	% 1,91	<b>% 1,90</b>

Urtea	I+Gko gastuaren urtearteko aldakuntza (%)		Enpresen finantzaketaren urtearteko aldakuntza (%)	
	Hasierakoa	Zuzendua	Hasierakoa	Zuzendua
2017	<b>% 5,6</b>		<b>% 3,7</b>	
2018	% 6,0	<b>% 5,2</b>	% 4,5	<b>% 3,1</b>
2019	% 5,4	<b>% 5,6</b>	% 3,9	<b>% 4,2</b>

Iturria: Geuk egina, hurrengo informazio iturrien datuetan oinarrituta: enpresa-taldeei banan-banako kontsulta; Eustat. Ikerketa- eta garapen-estatistika.

**Alderaketa horri esker, doitu egin da enpresen finantzaketaren hazkundera, agertoki moderatuago batera ekarriz**

*Eragile kolaboratzaileak*

---



*Informazio-iturriak*

---



# innobasque

berrikuntzaren  
euskal agentzia

agencia vasca  
de la innovación



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO